


Elkartek 45

INFORMAZIO ALDIZKARIA



enplegua

bizitza
independentea

irigarritasunean

etxebizitza

hezkuntza

osasuna

Cogoratu ...

ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea
Tel. eta Faxe: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxe: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxe: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

• EGINAREN EGINEZ

Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.

GIPUZKOA

• AGAER

Gaixotasun erreumatikoek erasandakoan Gipuzkoako elkarte.

• AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.

• AGI

Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarte.

• ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonetik kristau senide-tasuna.

• ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte.

• BEGIRIS

Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.

• BIZI-BIDE

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte.

• DEBARENENIKO GUTXITU FISIKOAK.

• LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

• ACCU

Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolitisa duten Gaixoen Elkarte.

• ADELA

Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarte.

• ADELES

Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarte.

• ADEMBI

Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte.

• ADISA

Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarte.

• AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte.

• ALCER

Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarte.

• ARGIA

Bizkaiko Ostomizatuen Elkarte.

• ASEBI

Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bifida e Hidrocefalia.

• ASPANOVAS

Bizkaiko Haur Minbiziduen Gurasoen Elkarte.

• AVAH

Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarte.

• BENE

Bizkaiko Eritasun Neuro-muskularren Elkarte.

• BIDARI

Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarte.

• BIZKEL

Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.

• CODISFIBA

Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.

• EFELA

Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarte.

• EMAN ESKUA

Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarte.

• ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA

• FRATER

Elbarrituen eta Gaixoen Kristau Elkarte.

• LEVAR

Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarte.

AURKIBIDEA

Orokorra

Legedi berria	4
Abenduaren 3ko adierazpena.....	6
2020rako enplegu-estrategia	7
Produktu ortoprotesikoak	8

Araba

Jardunbide egokia gizarteratzeari dagokionez	10
Emakumeen berdintasunaren aldeko kanpaina.....	10
Ohiko enpleguaren jardunaldia	11
Guztientzako aisialdi irisgarria.....	12
2017ko aurrekontuak: Gasteiz hobetuz.....	13
Urrezko kaskabiloa	13
Yes, we fuck	14

Bizkaia

Hiri Mugikortasun Plan iraunkorra.....	15
Elkarte berriak.....	15
Zainduz: zaintzaileak babesteko programa.....	16
Gizarte Zerbitzuen Zorroaren Garapena	17

Gipuzkoa

Haizearen Orrazia eta irisgarritasuna	18
Taxi egokituak gaueko zerbitzuan	18
Trafiko eta Aparkamenduaren Araudia (TAO).....	18
Donostia 2016, Europako Kultura Hiriburuaren legatua	19
Egoeraren eta beharren diagnostikoa egiteko azterketa	20

ELKARTEANEN LEHENTASUNAK LEGEALDI BERRIRAKO

ELKARTEANek legealdi berrirako lehentasunezko proposamenak eta iritzia azalduko ditu gure kolektiboaren erronka eta zailtasun nagusiak bistaratzeko eta bizitza independentea, berdintasun osoa eta bizimodu independenterako eta parte-hartzerako oinarritzko esparru guztietan barneratzea lortzeko baldintzetan aurrera egiteko proposamenak gehitzeko. Eta hori guztia lehentasuna duten esparru eta eduki hauen inguruan egingo da:

ENPLEGUAN: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntan lan-munduratzearen alde 2020rako Enpleguaren Estrategian jasotako konpromisoa neurri zehatzen bidez garatzeko beharra. Zehatz esanda, erreserba-kuota beteta eta hori bultzatzen duten enplegu-politika aktiboak garatuta. Hori guztia, gutxienez, azken urteotan Euskadin babestutako enplegua (enplegu-zentro bereziak) lagundu izan den neurri berean egin beharko litzateke, desgaitasuna duten pertsonen aldi baterako kontratazioa edo kontratazio mugagabea sustatuta eta lanpostuen egokitzapena behar bezala babestuta (kontratazio mugagabea zein aldi baterakoan).
- Desgaitasuna duten pertsonen enplegua duin bihurtzera, haien eskubideak eta lan-baldintzak bermatzera eta edozein enplegu-modalitatean urritasun-egoerak desagerraraztera zuzendutako neurriak hartzeko beharra. Zehazki, babestutako enpleguaren esparruan.
- Desgaitasuna duten pertsonen lan-orientazioko kudeaketa publikoaren aldeko apustua egiteko beharra (gainerako biztanleena bezalaxe). Horrek LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan baliabideak eta baldintzak finantzatzea eskatzen du. Eskariari erantzuna eman ahal izateko behar adinakoak diren eta desgaitasuna duten pertsonen orientazioa eta laguntza ematen trebatuta dauden profesional

espezializatuen taldeak jarri beharko lirатеke. Eta funtzio horiek kanporatzeko errealitatearen aurrean, ekimen pribatuaren lankidetzak orokorra izan eta desgaitasuna duten pertsona horientzat bakarrik espezializatuta ez dagoena izan beharko luke.

- Euskadin desgaitasuna duten pertsonen enplegu arloko egoeraren inguruko balantza eta diagnostiko egokia egiteko beharrezkoak diren informazioaren aldagai guztiak, datu errealak eta osoak izatea eta, bertatik abiatuta, herritarrei zuzendutako informazioaren jakinarazpen gardena eta ez-partziala egitea.

OSASUN arloan: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Osasun-sistemako zentro, gune, azpiegitura, unitate eta instrumental guztietarako irisgarritasuna bultzatzeko neurri egokiak garatuta.
- Katalogo ortoprotesikoaren inguruko Estatu mailako araudiaren garapenak gure kolektiboaren egungo eskaintzarekiko inolako murrizketarik edo atzerapenik ez duela ekarriko bermatuta. Gure duintasuna, autonomia, berdintasuna eta komunitateko parte-hartzea bermatzeko oinarritzko laguntzak dira.
- Gizarte Zerbitzuen Sistemarekin behar bezalako koordinazioa bermatuta “gizarte eta osasun arloko gunearen” garapen eragingarria lortzera bideratuta. Horrekin lotuta, errehabilitazio-zerbitzuetan erantzun zuzenak, ospitaleko alden ondoren baliabide egokiak eta abarrak bermatu beharko lirатеke.

ETXEBIZITZA arloan: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Etxebizitzi buruzko 3/2015 Legeak aurrez ikusitakoa garatuz, etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko eskubidearekin lotuta, Euskadiko pertsona guztientzako berme eragingarria izatea.
- Desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren beharretara egokituta dauden eta irisgarriak diren etxebizitzaren behar adinako eskaintzaren bermea. Desgaitasunak ez luke gainkostu erantsirik eragin beharko.

- Desgaitasuna duten pertsonen sarbideari eta eskariari buruzko beharrezko informazioaldagai guztiak eta datu errealak eta osoak izatea etxebizitza irisgarrien eskaintzari dagokionez.
- Etxebizitza irisgarriaren sustapeneko eskaintza guztiak desgaitasuna duten eskatzaile guztiengana edo baliabide horren beharra dutenengana iristen direla bermatzea.

HEZKUNTZA arloan: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Hezkuntza Lege berrian, hezkuntza barnertzailearekiko konpromiso eragingarria garaitea.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako pertsona laguntzaileen kasuan murrizketak kentzea, hala eskatzen duten langile guztiei erantzun egokia eta nahikoa bermatuz.
- Egoera errealarari buruzko azterketa egitea, bereizketa- eta babesgabezia-egoerak gertatzen baitira, eta desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza arloko araudian zehaztuta dituzten eskubide guztiak goza ditzaten bermatzeko neurriak zehaztea.
- Ohiko enpleguaren modalitatean desgaitasunak dituzten pertsonen lan-munduratzera bideratutako Lanbide Heziketa orientatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonengana bideratutako tratamendua abian jartzea modalitate eta irakaskuntza maila guztietan, gainerako biztanleriarekin egiten den moduan, aukeraberdintasun berberarekin, salbuespenik, mugarik eta bereizkeriarik gabe.

IRISGARITASUNEAN: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Irisgarritasun unibertsalaren alde inplikaturako eragile guztien eta administrazio publiko guztien konpromisoa bultzatzea, gizarterako baldintza hobetzeko elementu gisa.

- Irisgarritasuna lortzeko Euskadiko Estrategian aurrera egitea, baita araudi-testuingurua hobetzen eta eguneratzen ere, Eusko Jaurlaritza berriaren konpromisoa baita, pertsona guztiarentzako irisgarritasun unibertsalaren eta diseinuaren kontzeptua txertatuz.
- Eraikitzearekin eta urbanizazioarekin zerikusia duten profesionalen prestakuntzan, sentsibilizazioan eta inplikazioan aurrera egitea, baita eraikitze baimenen eta udal arloko erreformen azterketaren, kontrolaren eta baimenaren arduradunak diren pertsonen inplikazioan ere.

GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMAN: lehentasunezko gai hauek bideratuta:

- Zorroan bildutako laguntzen eta prestazioen hedapen ekitatibo eta homogeneoa bermatzea, sarbideko baldintzetan aldeak gerta ez daitezkeen, zerbitzuen eta prestazioen arteko bateragarritasunak, eta praktikan, bizi diren lekua arabera, herritarrentzako desberdintasun-egoerak sortuz.
- Lurralde guztietan garatzea eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroan laguntza ekonomikoa txertatzea bizi-proiektu independentea sustatzeko, hala eskatzen duten eta desgaitasun fisikoa edota organikoa duten pertsona guztiei Bizitza Independentea eskaintzera zuzendutako prestazio gisa.
- Zorroaren prestazioen eta zerbitzuen baldintza tekniko, funtzional eta materialen gaineko araudia garatzea, eskaintza zabala, anitza eta nahikoa eskainiz, komunitatean desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea eta parte-hartzaileerako euskarri gisa.
- Hori guztia HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN PARTE-HARTZE ERAGINKORRA bermatuz neurri eta jarduerak diseinuan, exekuzioan, jarraitapenean eta ebaluzioan.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIO BATUEN HITZARMENAREN HAMARGARREN URTEURRENEKO TESTUINGURUAN, ELKARTEANEK ABENDUAREN 3KO ADIERAZPENA EUSKADIN GUZTIZ APLIKATZEKO ERRONKA NAGUSIETAN OINARRITU DU

Aurten, Nazio Batuek Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen gaineko Hitzarmena onartu zeneko 10. urteurrena ospatu dute.

Hitzarmena gure ordenamendu juridikoaren parte da 2008ko maiatzaren 3tik, Espainiako Estatuak berretsi ostean. Horrek esan nahi du ez dela asmoen aitortzen hutsa soilik, eta ez dela nazioarte mailan soilik gertatzen den edo Gobernu Zentralari soilik dagokion zerbait, baizik eta erakunde eta eragile sozial guztiei dagokie lurraldeko maila guztietan. Estatuko, autonomia erkidegoetako, foru aldundietako eta tokiko erakundeetako ahalmen publiko, erakunde eta organismo guztiak betetzera eta aplikatzera derrigorputa daude.

Administrazioek desgaitasuna duten pertsonen beren eskubide guztiak erabil ditzaten bermatze

ko aplikatu behar dituzten neurri desberdinak biltzen ditu hitzarmenak:

Hain zuzen ere, Hitzarmenaren helburua desgaitasuna duten pertsona guztiak oinarrizko askatasunen eta giza eskubideen berdintasun-baldintzak eta guztizko gozamina sustatu, babestu eta bermatzea da, baita berezko duintasunaren errespetua sustatzea ere (1. art.).

Testuinguru honetan, ELKARTEANek Desgaitasunaren Eguneko Adierazpena (2016ko abenduak 3) Euskadin datozen urteetako zintzilik dauden erronka nagusiak eta hitzarmena aplikatzeari buruzko balantzean oinarritu du. Zehazki, ELKARTEANen ustez, oinarrizkoa da Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Parlamentuaren konpromiso erabakigarria gertatzea, baita foru aldundiena, batzar nagusia eta udalena ere, behar bezala bete dadin eta neurri guztiak aplikatu daitezkeen arlo guztietan, betiere, desgaitasuna duten pertsonen eskubide guztiak erabil ditzaten.

Ildo horretatik, ELKARTEANetik, uste dugu Euskadin arlo garrantzitsu hauetan aurrerapen gutxi izan direla:

- Desgaitasuna duten emakumeak: hainbat bereizketa motari egin behar izaten diote aurre eta beharrezkoa da zeharkakotasun bikoitza lantzea (emakumea eta desgaitasuna) politika, jarduera eta arlo guztietan.
- Irisgarritasuna: Irisgarritasun-araudiaren ez-betetzeak gertatzen dira oraindik ere eta irisgarritasuna ez da lehentasuna. Ezin izan dira beharrezko neurri guztiak hartu *“desgaitasuna duten pertsonen, besteekiko baldintza berberetan, ingurune fisikorako, garraiorako, informazioarako eta komunikazioetarako sarbidea izan dezaten bermatzeko, baita informazioaren eta komunikazioen teknologia eta sistematarako sarbidea ere, eta jendearentzat edo erabilera publikorako zabalduko zerbitzu eta instalazioetarako, bai hiri-eremuetan, bai landa-eremuetan”* (9. art).
- Modu independentean bizitzeko eta komunitatean txertatua izateko eskubidea: desgaitasuna duten pertsona askok era honetako gabeziak

dituzte: *“bizitokia aukeratzeko aukera eta non eta norekin bizi nahi duten, besteekiko baldintza berberetan, eta bizitza-sistema espezifikoko baten arabera bizitzera derrigortuta ez egotea”* eta ez dute laguntza pertsonalaren moduko zerbitzurik *“bizimodua errazteko, komunitatean txertatzeko eta isolamendua edo horretatik bereiztea saihesteko”*.

- Hezkuntza: ez dira *“hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzen ari maila guztietan, ez eta bizitza osoko irakaskuntza ere”*. Bereizketa-egoerak gertatzen dira eta murrizketan eraginez, desgaitasuna duten ikasleentzako laguntza-gabeziak egoera erreala ari da gertatzen.
- Osasuna: ez dira nahikoa neurri garatzen ari *“desgaitasuna duten pertsonen genero-gaiak kontuan dituzten osasun-zerbitzuetara sarbidea izan dezaten bermatzeko; gauza bera gertatzen da osasunarekin zerikusia duen birgaitzearekin ere”*.
- Lana eta enplegua: desgaitasuna duten pertsona askok ez dute *“irekiak, inklusiboak eta irisgarriak diren merkatu eta lan-inguruneetan modu askean aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizitza aurrera ateratzeko aukerarik”*.
- Bizitza maila egokia eta babes soziala: desgaitasunaren eraginez, pertsonentzako gailak handiak gertatzen dira (babes-produktuak, etxebizitza, birgaitze-zerbitzuak eta abar).
- Datuen eta estatistiken pilaketa: sistemetan (enplegua, etxebizitza, osasuna eta abar) ez dago *“politikak adierazi eta aplikatzeko aukera emango dien informazio egokirik, betiere, Hitzarmen hau gauzatzeko helburuarekin”*.

Azken finean, asko dira Euskadin Hitzarmena aplikatzeko zintzilik geratzen diren erronkak. ELKARTEANek Adierazpen honetan biltzeko proposamena egin du eta erakunde mailako eragin-lana, herritarren sentsibilizazioa eta datozen urteetan irtenbideen eta proposamenen eraikuntza partekatua garatzen jarraitzeko helburu argia du.

EUSKO JAURLARITZAK ENPLEGUA 2020 ESTRATEGIA ONARTU DU DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGURAKO SARBIDEA ETA JARDUERA TASA HOBETZEKO BEHARRA BILDUZ

Eusko Jaurlaritzak, uztailean, 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu zuen. Modu batera edo bestera Euskadin enpleguarekin zerikusia duten erakunde instituzionalek, ekonomikoek eta sozialek hartu dute parte hori egiten: erakundeak, enpresa-elkarteak, sindikatuak, klusterrak, hezkuntza-erakundeak, erakunde sozialak eta unibertsitateko adituak besteen artean.

ELKARTEANek ere hartu du parte hori egiten; horretarako, bere posizionamendua eskaini du, baita administrazio publikoen konpromiso erabakigarria eskatzera zuzendutako proposamenak ere, betiere, desgaitasuna duten pertsonak ohiko enpleguan txerta daitezten, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hain zuzen ere, beharrezkoa da Euskadin, neurri zehatz eta erabakigarriekin, desgaitasuna duten pertsonen eskubide hauek izan ditzaten bermatzea: *“irekiak, inklusiboak eta irisgarriak diren merkatu eta lan-inguruneetan modu askean aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizitza aurrera ateratzeko aukera izatea”*. Hori dela eta, beharrezkoa da ohiko enpresetan desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren kon-

tratazioa eta mantentzea sustatzeko eta babes-teko beharrezkoak diren laguntzak eta politikak bermatzea. Bizitza independentea, parte-hartzea eta aukera-berdintasuna ahalbidetzeko oinarri-zko baldintza da. Hala eta guztiz ere, Euskadin, babestutako enpleguaren modalitatea enplegu orokortuaren modalitatea da, eta azken urteetan desoreka eta atzerakada argia gertatu da ohiko enpleguan txertatzea sustatzearen kalterako.

2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiak 43 ildo ditu sei ardatzetan bilduta:

1. Aktibazioa. Egungo jarduera-tasa baxua handitzea, eta enpresen eskaerari aurre egiteko nahikoa populazio aktibo eta gure Ongizate Estatuari eusteko nahikoa populazio okupatu ez izateko arriskua arintzea.
2. Kualifikazioa eta kompetentziak. Produktio-ehunaren behar errealetara egokitutako kompetentziak lortzea, ezagutza teknikoak, kompetentzia sozialak, hizkuntzak menderatzea... aintzat hartuta
3. Aukerak sortzea. Aukerak sortzea garapen ekonomikotik abiatuta eta gure ekonomiaren enplegua sortzeko potentziala guztiz aprobe-tzatzea.
4. Aukera berdintasuna. Osatzen duten talde guztiei aukera ekitatiboak eskaintzen dizkien lan inklusiboko merkatua lortzea.
5. Kalitatezko enplegua. Kalitate handiagoko enplegua eskainiko duen lan-merkatua lor-tzea.
6. Enpleguaren Euskal Sistema eraginkorra, ba-liozko zerbitzuak eskaintzen dituen. Egungo Enpleguaren Euskal Sistema hobetzea, enple-guan eragiten duten politika guztiak txerta ditzan eta pertsonen eta enpresen beharretara bideratuagoa dauden zerbitzuak eskain ditzan saiatur.

Zehazki, “Aukera berdintasuna” Ardatzaren Ildoen artean: “Desgaitasuna duten pertsonen ohiko enplegurako sarbidea eta jarduera-tasa hobetzea”. ELKARTEANek jarduera ildo hori biltzea nahi du eta ildo horretatik erabakitako

konpromisoetan eta jardueretan gauzatzea espe-ro du. Beste batzuen artean:

- Euskadin desgaitasuna duten pertsonen en-plegu arloko egoeraren inguruko balantza eta diagnostiko egokia egiteko beharrezkoak diren informazioaren aldagai guztiak, datu errealak eta osoak izatea eta, bertatik abiatuta, herritarrei zuzendutako informazioaren jaki-narazpen gardena eta ez-partziala egitea.
- Konpromiso esplizitua eta erabakigarria iza-tea, beharrezko laguntzekin, ohiko enpresetan desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa eta enplegua mantentzea sustatzeko eta babeste-ko, baita lanpostuak egokitzeko ere.

ELKARTEAN EK OSASUN SAILARI KEZKA AGERTU DIO EUSKADIN PRODUKTU ORTOPROTESIKOEN ESKAINTZARI BURUZKO ESTATUKO PROIEKTUA TXERTATU DELAKO, ETA HORRI BURUZ DUEN JARRERA ETA PROPOSAMENAK AZALDU DITU

ELKARTEANek Osasun Sailari adierazi dio gure taldea zer arlok kezkatzen duen Euskadin produktu ortoprotesikoen es-kaintzari buruzko Estatuko Proiektua txertatu dela kontuan hartuta. Zehazki, Euskadiko Ma-terial Ortoprotesikoen Katalogo Orokorreko (2007an onartua) laguntzen eta edukien egungo mailaren gainean murrizketetan eta atzerapene-tan izan dezakeen eraginarengatik.

Egungo prestazioetan atzerakada eragiten duten gaiei buruzko kezka adierazi dugu:

- Finantzazio publikoarekin produktuen egungo eskaintza murriztuko den kezka.
- Finantzazio publikoaren maila murriztuko den kezka.
- Produktu askotan, batez besteko bizitza edo berritzeko gutxieneko aldia zabalduko den kezka.

ELKARTEANek aldarrikapen hau egiten du:

1 Euskadiko Katalogo Ortopotesikoan orain arte bermatutako edukia errespetada dadin, eta ondorioz, Euskadin aplika ez dadin, Estatuko araudi berriaren eraginez:

- Osakidetzako Katalogoan egun bildutako produktuetan edo zati batean ere murrizketarik ez egitea edo horiek ez kentzea.
- Murrizketarik ez egun finantzatutako zenbatekoan.
- Produktuen berrikuntzaren gutxieneko aldia edo batez besteko aldia hedapenik ez (egun ezarritakoaren gainean).

2 Katalogoko produktuen sarbide-prozeduren eta baldintzen hobekuntzan aurrera egitea; horrela, erantzun egokia emango zaie desgaitasuna duten pertsonen beharrei, eta egun, desgaitasuna duten pertsonentzako dakarren gainkostua ezabatuko da.

Izan ere, gure taldearentzat oso garrantzitsua da laguntza-produktuekin, laguntza teknikoekin eta material ortopotesikoarekin lotutako eskaintza egokia eta nahikoa izatea. Gure duintasuna, autonomia, berdintasuna eta komunitateko parte-hartzea bermatzeko oinarrizko laguntzak dira.

Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzari honako hau adierazi diogu:

1 Eusko Jaurlaritzatik zer egitea dagoen aurrez ikusita (posizionamendua eta jarduerak) Euskadin, gutxienez, Euskadiko Material Ortopotesikoaren Katalogo Orokorreko lagun-

tzen eta edukien egungo maila defendatzeko eta bermatzeko.

2 Euskadin, gure taldearentzako laguntza ortopotesikoetan atzerakadarik edo murrizketarik gerta ez dadin eskatzea.



3 Eskaintzaren gutxieneko edukiari, IMFri eta batez besteko bizitzari (edo berritzeko gutxieneko aldia) buruzko alderaketa zehatza egitea Aginduan eta Euskadiko egungo katalogoan bildutakoaren artean Aginduak egungo eskaintzan izan duen inpaktu zehatza eta egoera aztertzeko, eta Euskadin Katalogoa egokitzeko aurretiazko pauso gisa.

4 Euskadin Katalogoaren egokitzapena egitea (Aginduan biltzen dena betez), aginduan gutxienez eskatutako edukia txertatuz, baina eskaintzarekin, IMFrekin eta batez besteko bizitzarekin lotutako hobekuntza guztiak barne hartuz. Inola ere ez dira murriztuko arlo honetan taldearen edukia, eskubideak eta egungo bermeak.

5 Euskadin Katalogoko produktuen eskariaren eta eskaintzaren errealitatea ezagutzea: zenbat pertsonak eskatzen dituzten laguntzak, zer eskatzen duten, zer jasotzen duten, laguntza-produktuen kostuaren zer proportzio estaltzen duten eta abar.

JARDUNBIDE EGOKIA GIZARTERATZEAN

J oan den urriaren 22an, Aritz Ugarte Calvente Elkarteko kideak Euskadiko Hazien Sarea elkarteak antolatutako jarduera inklusiboan hartu zuen parte Arabako Foru Aldundiko Ingurumenarekin itundutako hitzarmenaren bidez.

Proba pilotu gisa antolatutako ekimena Valderegon zehar egindako bisitaldi gidatua izan zen; bertan, gure lankideak taldeko beste kideen baldintza berberetan parte hartu zuen, **joelette aulkia** erabili ahal izan baitzuen. Bi begirale izan



zituen berekin, eta horiei esker, ibilbide gidatu inklusiboa egin ahal izan zuten. Herritar talde batek eremua bisitatu zuen eta aditu bat izan zuten gidari. Horrek inguruko eremu desberdinen esanahia azaldu zien, eraikuntzen eta itxituren hondakinak, eremuko fruta-arbolak, Lalastrasko museoa eta abar.

Guztiak lagundu zuen, eguraldiak, adituaren ezagutzek, eremuaren edertasunak, talde batekin partekatzeak eta, batez ere, dagokion erreferentziako taldean besteen moduan parte hartu ahal izateak. Jardunbide on hori Arabako Foru Aldundiak, Ingurumen Sailak aurrez ikusitako ekimenen baitan finka dadin eta arabar guztiek bisitaldi gidatu horiek egin ahal izatea espero dugu -bakoitzaren egoera fisikoa edozein izanda ere-, Lurraldean ikuspegi desberdinetik topa ditza zakegun paraje bikainekin gozatzu.



BERDINTASUNAREN ALDEKO KANPAINA. “EMAKUME GUZTIAK ADIMENTSUAK ETA OSO BALIOZKOAK GARA”, EMAKUMEEI IGORRITAKO MEZU ARGIA ETA ZUZENEKOA

Eginaren Eginez elkartetik, “EMAKUMEEEN ESKUBIDEEN BERDINTASUNAREN ALDE” kanpaina jarri dugu martxan; izan ere, emakume guztiei mezu argia eta zuzenekoa igorri nahi diegu: **Emakumeak aurrean duen edozein egoerari aurre egiteko indarra, balioa eta borondatea du, bera nola dagoen kontuan izan gabe.**

Hasteko, gure helburua emakume guztiengana

jotzea da, adin- eta sexu-desberdintasunik gabe (edo beste egoeraren bat). Eta bigarrenik, gainerako biztanleria osoari zuzendutako mezua da.

Profila kontuan izan gabe ahalik eta pertsona kopuru handienera iristeko, kanpaina, gaztelaniaz eta euskaraz diseinatu dena, bi bideren bidez eman da ezagutzera: kanpoaldeko grafikoa (kartelak) eta Internet (sare sozialak eta webgunea).

Emaitza argia izan da, hau da, grafiko gaurkotua, freskoa eta oso deigarria:

- Grafikoa *We Can Do It!* kartelaren irudian dago oinarrituta. Nazioarte mailan oso erabilia eta aitortua izan da duen sinbologia feministarengatik. Irudia beste elementu bat gehituz pertsonalizatu da: gurpildun aulki bat (emakumea eserita dago eta aulkiaren zati bat ikusten da).

Horrela, funtzio-aniztasuna duen emakumea izango da kartelaren protagonista.

- Mezu argiarekin eta zuzenarekin, **“EMAKUME GUZTIAK ADIMENTSUAK ETA OSO BALIOZKOAK GARA”**, emakume guztiak adimentsuak eta oso baliozkoak direla jakinarazteko; egoera orori modu independentean, inoren laguntzarik gabe, aurre egin ahal izateko bi gaitasun.

Kartelak ipiniz eta hedapenerako sareak erabiliz eman da ezagutzera kanpaina. Informazio gehiago:

www.eGINEZ.org

DESGAITASUN FISIKOA ETA OHIKO ENPLEGUA DUTEN PERTSONEI BURUZKO JARDUNALDIA

Joan den urriaren 24an, Eginaren Eginetz Arabako desgaitasuna duten pertsonen elkarteak antolatuta eta Gasteizko Udaren eta Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen babesarekin, Gasteizko Europa Kongresu Jauregian, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eta ohiko enpleguari buruzko jardunaldia egin zen. Bertan, hizlari hauek parte hartu zuten: Jesús Souto Prieto Auzitegi Goreneko Magistratuak, Francisco Javier Arrieta Idiakez Deustuko Unibertsitateko Gizarte Segurantzako eta Lan Zuzenbideko Irakasle Titularrak, eta Fernando Manrique López Deustuko Unibertsitateko Gizarte Segurantzako eta Lan Zuzenbideko katedradunak.

Jesús Souto Prietok, “Desgaitasun fisikoa duten pertsonak eta ohiko enplegua Auzitegi Gorenaren jurisprudenziaren bidez” hitzaldiaren bidez, Auzitegi Gorenak arloan



emandako epai garrantzitsuenak azaldu zituen. Horrela, beste gai batzuen artean, arreta berezia ipini zion alderdi hauei: desgaitasuna duen pertsonaren estatusa enpleguarekin lotzeko garaian nola interpretatu eta zehaztu, probaldian zer berezitasun dauden eta enpleguko zentro berezi batek kontratatuagatik beste enpresa batzuei zerbi-tzuak eskaintzen dizkien desgaitasuna duten pertsoneri aplika dakiekeen hitzarmen kolektiboaren zehaztapenak ekar ditzakeen arazoak.

Bestalde, Francisco Javier Arrieta Idiakezek, bere hitzaldian “Desgaitasun fisikoa duten pertsonen ohiko enplegua: agerraldiak eta ondorioak erregimen profesionalean”, “ohiko enpleguaren” kontzeptu juridiko zehaztugabea aipatu ostean, ohiko enplegua “enplegu babestuen” aurrean identifikatu egin behar dela nabarmentzen duen tesia defendatu zuen, lehendik dauden erregimen profesional desberdinekin, hau da, soldatapekoei, langile publikoei, autonomoei eta kooperatibetako bazkideei dagozkienak. Zehazki, horretarako, aipatutako erregimen profesionalen araudietan ohiko enpleguaren agerraldi nagusien eta ondorioen azterketa gauzatu zen. Era berean, aurretik, eta aztertuko den arloan duen zeharkako garrantziarengatik, hauetan jartzen du arreta: ohiko enpleguaren alde egiten duten agindu konstituzionalen azterketan; nazioarteko araudiaren aurka 1/2013 Errege Lege Dekretuan gertatu den ohiko enpleguaren aldeko lehentasun-printzipioa ez betetzeagatik ezabapenean; 3/2015 Errege Lege Dekretutik ondorioztatzen den ohiko enpleguari laguntza ematean, hain zuzen ere, burua izan ohi da enpleguko politika aktiboetan; eta 31/1995 Legetik eratorritako desgaitasuna duten pertsonen enplegurako laneko arrikuen prebentzio arloko eskakizunetan.

Azkenik, Fernando Manrique Lópezek, “Ohiko lanaren hausnarketa Gizarte Segurantzaren legetik gaitasun murriztua duten pertsonentzat” hitzaldiarekin, ezintasunaren arloan dagoen legediaren ibilbide historikoa egin zuen, irismenetik eta Zuzenbide Zibilean dituen ondorioetatik hasi, lan egiteko gaitasunaren institutuari lotuta, eta Gizarte Segurantzako legegintzako aldi bate-

koa edo iraunkorra den ezintasunaren kontzeptura iritsi arte. Zehazki, lan-munduan pertsona ezindutzat zer hartu behar den galderari erantzutea ahalbidetzen duten oinarriko kontzeptuak aipatu ostean, 1/2013 Errege Lege Dekretuan ageri den desgaitasunaren kontzeptua aipatu zuen; nabarmendu zuen kontzeptu hori ez dela “laneko errendimenduarekin” lotzen; hain zuzen ere, hori gertatzen da Gizarte Segurantzako ezintasunekin, eta zentzua du desgaitasuna duten pertsonen enpleguaz hitz egitean.

“AISIALDI IRISGARRIA GUZTIEN PARTE-HARTZEAREN ETA GOZAMENAREN ALDE”. KANPAINA FRESKOA ETA ERAKARGARRIA

Eginaren Eginez elkartetik “AISIALDI IRISGARRIA GUZTIEN PARTE-HARTZEAREN ETA GOZAMENAREN ALDE” kanpaina egin dugu; izan ere, Gasteizko herritarrei erakutsi nahi diegu aniztasun funtzionala dugun pertsonok zer zailtasunekin egiten dugun topo.

Informazio-salaketa eta sentsibilizazioa oinarri duen kanpaina gazteen artean banatu da elkarte-ko gazteak aisialdiko jardueretan zer egoeretan dauden gogoeta egiteko eta gizarteratzearen alde egin dezaten.

Aisialdi irisgarria erraztu behar da. Oztoporik gabeko sarbideak parte-hartzea sustatzen du, eta horrek, era berean, gozatzeko aukerak handitzen ditu. Mugikortasun murriztuko gazteek kulturarako, sormenerako eta aisialdirako duten sarbide normalizatua ezinbestekoa da.

Egungo grafikoa da, freskoa eta oso deigarria. Gazte guztiengana iritsi nahi du 3 pasotan:



- Lehen: informatu. Irakurtzeko erraza den mezua, argia eta zuzena, irakurtzeko gogo pizten duena eta hitz garrantzitsuenak nabarmentzen dituena: berdintasuna, aniztasuna, aukera, inklusioa eta bizitza.
- Bigarrena: gogoetarako gogoia piztu, agintera erabiltzen da: “Kendu”, “Aintzat hartu” eta “Erabili”.
- Hirugarrena: parte hartzerako gonbita egin, jardutera “Erabili”.

Kartelak ipiniz eta hedapenerako sareak erabiliz eman da ezagutzera kanpaina. Informazio gehiago:

www.eginez.org

2017KO AURREKONTUAK. GASTEIZ HOBETUZ

Bideragarritasun-txostenak gainditu zituzten eta herritarrek botoa eman zioten Eginaren Eginetzeko hiru proiektuen

artetik, Udal Gobernuak onartuko du eta aurkeztuko ditu 2017ko Udal Aurrekontuko proposamenen horietako bi:

- **Funtzio-aniztasuna duten pertsonentzako eraztun berdearen irisgarritasuna hobetzea.**
- **Egokitutako jolasak instalatzea haur-jolasen arlo guztietan.**

Hau da, aurrekontuan txertatu dira herritarrek aukeratutako 15 proiektu, eta horietako bi dagoeneko aipatutakoak dira, Elkartek proposatutakoak. Horietako bat, egokituko jolasen instalazioari dagokiona, partzialki txertatu da; izan ere, aurrekoarekin, zenbatekoa 2.716.520 eurokoa da eta proiektua partzialki exekuta daiteke, 3 milioi zehatzera iritsi arte; horixe zen aukeratutako proiektu guztietarako aurrez ikusitako kopurua.

Hemendik herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu aurkeztutako proiektuek jaso duten babesarengatik; horren helburua pertsona guztien bizitza-kalitatea hobetzea eta gure taldearen oinarritzko eskubideak bermatzea da.

ONCEREN URREZKO KASKABILOA

Eginaren Eginetz elkartearen ekimen honen, 2017ko aurrekontuetan parte hartzeak alegia, eragin du ONCEk gure erakundea izendatzea aurtengo Urrezko kaskabiloa jasotzeko. ONCEri izendapena eskertzen diogu, baina ia gehiago eskertzen diogu ez eman izana; izan ere, ezin izango genuen jasotzera igo Arka kalean urrian 22an ipini zuten geruzaren irisgarritasun-faltarengatik.

Zehazki, zintzilik geratu diren proiektuetako bat “Agertoki irisgarriena” zen. Ekimen publiko batean parte hartu nahi dugunean topatzen ditugun egoera horiek arintzea zuen helburu; izan ere, edozein ekimenetarako bide publikoan gaitzen diren agertokiek sarbideko arrapala izan behar dutela uste dugu. Ostera ere erakundeei eskatuko



diegu jartzen dituzten eta hirugarrenei alokatzen dizkieten agertokiak irisgarriak izan daitezela, eta beste erakundeetako beste kideei esango diegu aldarrikapena egiteko, herritar GUZTIAK ateratzen baitira irabazten.

Hala eta guztiz ere, eskerrak eman nahi dizkiogu ONCERi eta “Montes Solidarios” talde irabazlea zoriondu nahi dugu. Bizitzako arlo guztietan inklusioaren alde borroka egitera eta aldarrikatzera gonbidatzen ditugu.

| YES, WE FUCK

Urriaren 11n Antonio Centeno eta Raúl de la Morena “Yes, we fuck” dokumentaleko zuzendariak izan genituen bisitari, baita Mertxe Sánchez ere, bertako protagonista. 2016-2017ko Gasteizko Emakumeen Berdintasunerako eta Ahaldunderako Eskolan jardueren artean antolatutako konferentziaren testuinguruan izan zen. Moderatzaile gisa jardun zuen Igor Navarro eginaren eginez elkarteko kideak.

Saioan, funtzio-aniztasuna duten pertsonetan sexualitatea lantzen duen dokumental honen irismena ezagutu ahal izan genuen. Sexualitateak desgaitasuna duten pertsonen alde zer egiten duen erakustez gain, funtzio-aniztasunaren errealitateak gizakien sexualitateari zer eskain diezaiokeen ere erakutsi nahi da.

Sexualitateari eta aniztasun funtzionalari buruzko lan hau mendekotasuna-infantilizazio binomioa hausteko beharretik sortzen da; termino horiek atzeraelikatu egiten dira orain arte aurrerapen ideologiko eta lege arloko aurrerapen orori erresistentzia erakutsi dion gurgil zoroa sortuz.

Horretarako gutzirako estrategiak istorio errealak erakutsi ditu irudi zehatzekin eta desgaitasuna duten pertsonak “izaki sexual eta sexudun moduan, gorputz desiratzaille eta desiragarri gisa” agertzen dituzte. “Yes, we fuck” jendeak parte hartu, elkarrizketa egin eta, batez ere, “galderak egiten” dituen proiektua da. Gorputzaren, sexualitatearen eta desgaitasuna duten pertsonen inguruan elkarrizketa sortzen duen plataforma bihurtu nahi du.

Hitzaldirako eta dokumentalerako esteka

www.eginez.org elkartearen webgunean duzu.



YES, WE FUCK!

FEKOOREK BILBOKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANAREN LANTALDEAN PARTE HARTU DU

Bilboko Udala Bilboko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana egiten hasi da. Estrategia horrek 2016-2030 epemugarekin udalerraren irisgarritasun eta mugikortasun iraunkorraren arloko ekintzak koordinatu eta norabidea ezarriko du.

Helburu horrekin, Bilbok hiri-mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan aurreratuen dauden Europako hiriekien lerrokatu nahi du. Horretarako, Europako gomendioak aztertu eta ekarriko ditu eta urtebeteko epean mugikortasun iraunkorreko politiken arloan jarraitu beharreko eredu propioa definituko du.

Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan hau lankidetzaren bidez egingo da hasieratik eta eragile ugariak parte hartu dute, herritarren, erreferentziazko herritar-elkarteen, intereseko talde ugarien eta administrazioen ekarpenak biltzeko.

Planak egungo diagnostikoa izango du abiapuntu eta hiriaren eredia sustatzeko neurri zehatzak biltzen dituen jarduketaren plana bilduko du, osasungarriagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan dadin, bizitza-kalitatea hobetzeko eragina izan dezan.

Lehen bilera urriaren 24an izan zen eta FEKOOREK udalerriri gaur egun dituen irisgarritasun unibertsaleko eta mugikortasuneko gabeziak jakinarazi zituen. Horrez gain, Planean sartzea

beharrezkoa izango den lehenetsutako jarduketaren eremuak ere adierazi zituen, eta elkartearen mugimenduaren eremutik dugun esperientzia eta lankidetzaren eskaintza izan zituen.

EMAN ESKUA ETA ENEBIZIA ELKARTEEK BAT EGIN DUTE FEKOOREKIN

Zorrotzako (Bilbo) Enebizia Elkartek eta Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen Elkartek (EMAN ESKUA), bat egin dute orain gutxi Desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazioarekin (FEKOOR) bat egin dute, eta hala, desgaitasun fisiko eta organikoa duten pertsonentzako laguntza-erakunde nagusien asoziazio-proiektua indartu dute Bizkaian.

Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen Elkartea 2004an sortuz, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume kaltetuen talde baten ekimenez, bi gaixotasun horien diagnostikoan, tratamenduan eta ikerketan interes-garbiaren aurrean erakunde publikoak eta gizarteak, oro har, ohartarazteko.

Haien jardueren artean, nabarmentzekoak dira pazienteentzat eta familiako kideentzat informazio-gidak eta dibulgazio-materialak egitea; jardunaldiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak egitea; Neke Kronikoaren sindromea eta Fibromialgia duten gaixoen bizitza-kalitatea errazteko Gizarte Zerbitzuetako zentroekin akordioak garatzea, eta osasun publikoaren arreta emateko diziplina anitzeko taldeak sortzea sustatzea.

Horrez gain, osasunerako hezkuntza-programak eta elkarri laguntzeko taldeak dituzte, ulermen



gabeziaren, arreta-faltaren eta genero-bereizke-riaren aurka egiteko.

Zorrotzan dagoen Enebiaz Elkartea irabazi-as-morik gabeko erakundea da, eta haren helburua da desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea erabatekoa izatea.

Desgaitasunak dituzten pertsoneri jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen dizkiete, hala nola gizarte-zerbitzuak eta baliabideak izapidetzea eta kudeatzea, aholkularitza, sentsibilizazio- eta dibulgazio-kanpainak, tailerrak, errehabilitazio fisikoa eta norbere autonomia mantentzekoa, edonolako laguntzen kudeaketa eta ebazpena: minusbaliotasun-ziurtagiriak, aparkatzeko txar-telak, ezintasunak, kontratuak, laguntzak, diru-laguntzak. Lan-poltsa propioa dute.

ZAINDUZ: ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

FEKOOREk beste urtebetez ZAINDUZ Programa martxan jarri du, desgaitasuna duten eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen familiakoei zuzenduta., zaintzaren prozesu konplexuan espezializatutako laguntza eskaintzeko.

Programaren funtsezko helburua Autolaguntza Emozionala da, eguneroko zaintzaren bizipena partekatzeko eta elkarri laguntzeko talde baten testuinguruan, aldi berean bizitza-proiektua bera zainduz.

Ekimen honekin, Federazioak familia-inguru-
nean zaintzaileen arretarako, babeserako eta laguntzarako erreferentziatzeko programa bat eskaintzen die elkarteko kide direnei, eta hala, laguntza-behar espezifikoei erantzuna ematen die, eta eguneroko zaintzaren bizipena partekatzeko eta laguntzeko talde bat dute, bizitza-proiektuak berak egiteko laguntzen diena.

Saioak asterokoak dira, eta FEKOOREko loka-
letan izaten dira Indalecio Prieto etorbidea 16 –

Santutxu (Mina del Morro) helbidean, 10:30etik 12:30era. Taldea astelehenero biltzen da azaroa-
ren 7tik otsailaren 20ra eta zaintzaileei laguntzen espezializatutako psikologo batek dinamizatuta egoten da.

Autozaintzaren eta espazio pertsonalak bilatu beharraren eta harreman pertsonalak edo zale-
tasunak lantzeko denbora hartzearen garrantzia. Horrek zaintzen duen pertsonarekiko harremana, familia-giroa eta bizitza-kalitatea hobetzen du.

Herstura-, depresio- eta gaitz-erazio-prozesuak izan ditzakete sarri pertsona horiek egoerak gaitz-erazioak dituztenean eta aurre egiteko estrategia egokiak edo kanpoko laguntza-baliabideak bila-
tzen ez dituztenean.

Auto-laguntzako taldeak maila emozionalean onura handia ematen du, antzeko esperientzia bizi duten pertsonen artean laguntzeko eta harre-
manak izateko aukera eskaintzen baitu, eta horrek autokonfiantza eta autoestimua indartzen du eta aldaketa-prozesuak sortzen ditu maila fisiko eta emozionalean zainzailearengan.

Izen-ematea doakoa da eta plazak mugatuak dira. Interesdunek **94.402.47.46.** telefonora dei dezakete.



GIZARTE ZERBITZUEN ZORROA GARATZEN DUTEN AZKEN ARAUDIAK

Orain gutxi onartu dituzte aldi baterako egonaldi-erregimenean desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko arreta duen egoitza-zerbitzuko plazetarako sarbidearen sistema orokorra arautzen duen Foru Dekretua, familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa arautzen duen Dekretua, mendekotasun-egoeran balorazioa eta orientazioa emateko prozedura arautzen duena eta egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena.

Aipatutako Dekretuetako lehenengoari dagokionez, aldi baterako egonaldi-erregimenean eguneko arreta duen aldi baterako egoitza-plaza batera sartzeko beharrezko eskakizunak aldatu direla nabarmendu nahi dugu; hain zuzen ere, plaza horietarako 18 eta 64 urte arteko adina izan behar da, eta salbuespenez, adin txikikoak izan daitezke, haien egoera soziofamiliarragatik hala aholkatuz gero eta/edo babesgabetasun-arrisku larrian baldin badago.ñ (2015eko azaroaren 24ko 173/2015 Foru Dekretua, 2016ko ekainaren 13ko 108/2006 Foru Dekretua aldatzen duena. BAO 231. zk.)

Bigarren Dekretuari dagokionez (2016ko urriaren 11ko 152/2016 Foru Dekretua, familia-inguruneko zaintzetarako prestazioa arautzen duena. BAO 196. zk.).

Araudi berri horretatik nabarmentzen dugu prestazioaren azken helburua mantendu egiten dela, **profesionala ez den zaintzaileak emandako arretaren ondoriozko gastuak estaltzen** laguntzen jarraitzen baitu.

Prestazio hori **bateragarria** da honako zerbitzu edo prestazio hauekin:

- 1 Teletaguntza Zerbitzua.
- 2 Eguneko Arreta Zerbitzu pribatua.
- 3 Norbere autonomia sustatzeko zentroak.
- 4 Etxeko Laguntza Zerbitzua, eta zerbitzuari

lotuta dagokion prestazioa, zerbitzua eskaintzen duen Udalak bateragarria dela zehazten badu.

Eta **bateraezina** izango da honekin:

- 1 Egoitza Arreta Zerbitzu iraunkorra eta aldi baterakoa,
- 2 Eguneko Arreta Zerbitzu publikoa eta zerbitzuari lotuta dagokion prestazioa; eta zentro soziosanitarioetan sartzea ere.

Gogoratu prestazio ekonomikoa honen **onuradun** izan daitekeela mendeko pertsona gisa baloratu den eta erregimen arruntean edo babestuan, norbere kontura edo besteren kontura, **lan-jarduerarik egiten ez duen** edo altaren pareko egoeran ez dagoen pertsona.

2016ko urriaren 31ko 157/2016 Foru Dekretuak (BAO 210. zk.) egoitza-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen du.

Foru-egoitzaren zerbitzu publikoan plaza baten onuradun izaera aitortuta izanik mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran dauden pertsonak eta, plazarik eskuragarri ez dutelako modu iraunkorrean edo aldi baterako modu pribatuan sartuta daudenek, sarbidea izan dezakete prestazio ekonomikoa honetara, egoitza-zentro batean modu pribatuan emandako arretaren ondoriozko gastuak estaltzen laguntzeko. Prestazioaren zerbatekoa ezartzeko, norberaren gaitasun ekonomikoa edo, dagokionean, bizikidetz-unitatearena hartuko da kontuan.

2016ko urriaren 11ko 153/2016 Foru Dekretuak (BAO 196. zk.) mendekotasun-egoeran balorazioa eta orientazioa emateko prozedura arautzen du, eta mendekotasunari arreta emateko sistemako zerbitzu eta prestazioen eskubidea ere aitortzen du. Berrikuntza gisa nabarmentzen dugu prozedura Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen eta prestazioen zorroaren Dekretuak markatutako jarraibide berrietara egokitu duela eta prozedurak egoitza elektronikora sartu dituela.

Dekretu horiei buruzko informazio gehiago izateko, jar zaitez harremanetan FEKOORekin **94 405 36 66** telefono-zenbakian edo emailaz: **fekoor@fekoor.com**

HAIZEAREN ORRAZIA ETA IRISGARRITASUNA

J oan den apirilean, **elkartu**-k Donostiako Udalarari eskatu zion, magala egonkortzeko lanak zirela eta, Haizearen Orraziko irisgarritasun-baldintzak bermatzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak egun zitzala.

Zehazki, gaur egun dagoen galtzada-harrizko zoladuran egin beharreko jarduketak egitea babes-ten zen, mugikortasun murriztua duten pertsonen segurtasunez, erosotasunez eta duintasunez eremura iristeko eta bertan mugitzeko aukera eman ahal izateko, betiere, noski, hain balio kultural eta artistiko handiko espazio batek izan behar duen beharrezko babesa zainduta.

Udalak erantzunik eman ez duenez, eta gai horretan esku hartzen duten eragile batzuek intransigentziak kontra egiten dutenez, **elkartu**-k berriz gogorarazi du Udalaren erantzukizuna eta eskumena dela gai hori, eta Haizearen Orraziko zoladura pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinu-eskakizunetara egokitzeko jarduketa eta neurriak hartu behar dituela. Hori dela eta, gogorarazi behar da 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzkoak, 3.1 c) artikuluan honakoa dioela: *“Euskal Autonomia Erkidegoko ondare historiko-artistikoa pixkanaka lege honek markatutako irisgarritasun-irizpideetara egokitu beharko da”*.

elkartu-k desgaitasuna duten pertsonen berdintasun-egoeretan bizitza kulturean parte hartzeko duten eskubideak bermatzeko lanean jarraituko du, eta horretarako, pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinu-neurriak sustatuko ditu.

TAXI EGOKITUEN ZERBITZUA GAUEZ

elkartu-k desgaitasuna duten pertsonen zenbait kexa jaso ditu gauez mugikortasun murriztuko pertsonentzat egokitutako taxi-zerbitzurik ez dagoelako.

Egoera hori ikusita, eta Federazioak aldarrikatutako ibilbidean zehar planteatutako eskaera berriz hartuta, gertakari horien berri eman diegu eskumena duten erakundeei, desgaitasuna duten pertsonen berdintasun-baldintzetan egun osoz zerbitzu publikoa erabili ahal izateko duten eskubidea bermatu ahal izateko beharrezko neurriak har ditzaten. Era berean, gogorarazi dugu Garraioan Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onartzen dituen 2001eko uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuan ezarritakoaren arabera, *“Hiru mila biztanle baino gehiagoko Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan, udalerrri horietako udalek gutxienez egokitutako taxi baten lizentzia izatea sustatuko dute, eta zerbitzua eguneko 24 orduetan ematea bermatu beharko da. Edonola ere, 20 taxi-lizentzia baino gehiagoko udalerrietan, horien % 5 izango dira gurpildun aulkiko erabiltzaileei egokitutako ibilgailuak.”*

TRAFIKO ETA APARKAMENDUAREN ORDENAMENDUAREN (TAO) ALDAKETA DONOSTIAN

Donostiako Udalak Araututako Aparkamenduaren Ordenamendua aldatzea onartu du, **elkartu**-k azken hilabeteetan desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekue- tako txarteletako titular direnen eskubideak aldarrikatu ondoren.

Aldaketa horrekin, Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartela dute-

nek erresebatutako plazetan aparkatu ahal izango dute doan eta eguneroko denbora-mugarik gabe, ezarritako eguneroko gehieneko aparkaleku-mugaren (24 ordu) barruan.

Era berean, mugikortasun murriztuko pertsonentzako (MM biñeta) aparkalekuaren Bereizgarria duten titularrek eta desgaitasuna duten pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartelarekin identifikatutako ibilgailuek araututako aparkatzeko leketan aparkatu ahal izango dute (plazak ez daude erresebatuta), dagokion Tasa horretarako ezarritako sistemaren bidez aurretik ordainduta (2. tarifa), eremu bakoitzerako ezarritako gehieneko denbora-tartearen mugaren mende geratu gabe. Era berean, mugikortasun murriztuko pertsonentzako aparkatzeko Bereizgarrien titularrek (MM biñeta) egoiliarrentzat erresebatutako eremuetan aparkatu ahal izango dute, tasa ordaindu beharrik izan gabe eta aparkatzeko gehieneko denboraren mende egon gabe. Aldiz, Aparkalekuko Europako Txartelaren titularrek, tasa ordaindu gabe aparkatu ahal izango dute, baina 1 ordu eta 30 minutuko denbora-mugarekin.

Txartel mota	MMP erresebatutako plazak	TAO plazak	Egoiliarrak
Europako Txartela	Doakoa Geh. 24h	2. tarifa	Doakoa Geh. 1h30min.
MM	Doakoa Geh. 24h	2. tarifa	Doakoa

Azkenik, aipatu beharrekoa da esposizio publikoaren izapide horretan **elkartuk** aurkeztutako helegitearen ondoren, Trafiko eta Aparkamentuaren Ordenamenduan (TAO) honako hau ezarri dela: *“Desgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartela duten ibilgailuentzat erresebatuta gabeko plazetan aparkatzeagatik tarifa aplikatuko dira, betiere, aplikagarri den araudian aurrez ikusitako mugikortasun murriztua eta desgaitasuna duten*

pertsonentzako erresebatutako aparkaleku gutxieneko plaza kopurua bermatzeko betebeharrak bete dela egiaztatzen denean”.

DSS2016 LEGATUA: EKITALDI KULTURAL IRISGARRI ETA INKLUSIBOETARAKO GIDA

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzako Proiektuak kultura bizikidetzarako tresna gisa sustatu du, eta horrekin, aukera-berdintasuna eta pertsonen parte-hartze aktiboa bermatzeko duen gizartea eraikitzen lagunduko du.

Antolaketak eta **elkartuk** lankidetzak izan dute 2016an desgaitasuna duten pertsonentzat kultura-erakundeak bermatzera bideratutako zenbait ekintzetan. Horretarako, ekitaldi kultural irisgarriak eta inklusiboak diseinatzea eta antolatzea bermatzeko Protokolo bat egin dute, proiektu kulturaletako irisgarritasun-baldintzei buruzko aholkularitza eman dute, proiektu ugarietan parte-hartze aktiboa izan dute edo DSS2016ko boluntarioak prestatzen aritu dira.

Proiektu ugarien garapenaren bidez Europako Kultur Hiriburutzan metatutako esperientziari esker, pertsona guztiek aukera-berdintasunean gozatu ahal izateko ekitaldi kulturalak izan behar dituzten printzipio, ezaugarri eta baldintzak dituzten tresnak izateko beharrezko guztia bildu ahal izan dute.

Horretarako, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzak ekitaldi kultural irisgarriak eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko gida bat egitea sustatu du. Gida horren diseinuan eta prestatetan **elkartu** izan da liderra, eta eragile kultural publiko eta pribatu ugarien, desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren erakundeen eta desgaitasuna duten pertsonen beraien parte-hartzea izan duen gogoeta-prozesu bateratuaren ondorioa izan da.

Tresna didaktikoa da eta proiektu kulturalak diseinatzeko, antolatzeko eta exekutatzeko ardura duten pertsona eta erakundeek erabili ahal izango dute. Hala, gabezia bat estaliko du, hain zuzen ere, indarrean den araudiak aurrez ikusitako eskakizun teknikoek harago, modu unibertsalean eta zeharkakoan kultura eta haren izaera inklusiboa landuko duen antzeko beste tresnarik ez baitago.

Proiektu kulturalak, diseinatzen diren unetik eta exekuzioko fase guztietan, erabat irisgarriak eta inklusiboak izan daitezten eta, ondorioz, pertsona guztiek modu aktiboan horietan aukera-berdintasunez parte har dezaten bete behar dituzten eskakizunak biltzen ditu Gidak. Hau da, ekitaldiaren beraren diseinua, komunikazioan bete beharreko baldintzak, garatzen den lekurako sarbidea eta jarduera kulturalaren arabera bete behar diren irisgarritasun-eskakizunak lantzen ditu.

Azken batean, Donostia 2016k eta **elkartuk** lankidetzan egin dute Gipuzkoarako eta bertan parte hartzen duten eragile publiko nahiz pribatu ugarietarako legatu kulturala. Hala, kulturari jokabide inklusiboak garatzea eta kulturarako eskubidea herritar guztiei bermatzea sustatu dute, gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa lortzeko.



SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

GIPUZKOAKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN BEHARREN ETA EGOERAREN AZTERKETA- DIAGNOSTIKOA

Joan den ekainean Tabakalera egindako Jardunaldian egindako aurkezpen publikoaren ondoren, elkartuk zenbait ekintza egiten jarraitu du “Gipuzkoako desgaitasun fisikoaren duten pertsonen beharren eta egoeraren azterketa-diagnostikoaren” datuak eta ondorioak erakunde publikoen eta gizartearen aurrean ezagutarazteko.

Hala, igorritako proposamena onartu ondoren, elkartuk Sevillan 2017ko otsailaren 16an eta 17an egingo den Gizarte Politiken Espainiako Sarearen VI. Kongresuko Desgaitasun eta Gizarte Politiken Panelean aurkeztuko du ikerketa-proiektua. Komunikazioaren edukia gizarte-bazterketaren diagnostikorako tresnak aplikatzean oinarrituko da, eta desgaitasunaren arloan gizarte-politiken diseinutik ateratako ondorio eta datuak erabiliko ditu.

Era berean, Gizarte Politiken Batzordean agerrialdia eginez Azterketa Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkezteko beharrezko izapideak egin dituzte. Horrez gain, Gipuzkoako eskualde ugarietan aurkezpen-bilera ugarietarako deialdia egitea aurrez ikusita dago.

Azkenik, gogoratu behar da “Gipuzkoako desgaitasun fisikoaren duten pertsonen beharren eta egoeraren azterketa-diagnostikoa” eta ahultasunak identifikatu eta jarduera-neurriak proposatzen dituen laburpen exekutiboa **elkarturen** webgunean eskuragarri daudela

(www.elkartu.org)